

Zoritu gabe hirotu



Jakoba Errekondo

Fruitu sasoi nagusia den udazken hasiera honetan, nahi gabe ere etengabe datorkit larruazalera trogloditatasuna. Milaka urtean mantendu gaituen makina bat fruitu seko ahaztua dugu. Eta ikusi, eskuan hartu eta ahoratu orduko gogoahitzen didate. Ahal dudanero egiten saiatzen naiz; nahita kordea galtze hori bezalako estasi gutxi ezagutzen dut...

Mizpira da fruitu horietako bat, *Mespilus germanica*. Berezko mizpirarik ez dut ezagutzen. Inoiz jakiterik ez dut lortu, baina hazitik erabat antzua ote espezie hau? Mizpira izatekotan beste landareren baten gainean txertatutakoa behar du: irasagarrondoa (*Cydonia oblonga*), elorri zuria (*Crataegus* spp.), udareondoa (*Pyrus communis*), maaltza (*Pyrus cordata*), mizpirondo japoniarra (*Eryobotria japonica*), nashi udareondoa (*Pyrus pyrifolia*) eta gurbea (*Sorbus domestica*). Mizpirak ez du helduta irauteko ohitura; ia ondu aurretik usteltzen hasten da. Zoritu gabe hirotzeko joera horrek ez du, ordea, fruitua alferrik galtzen: usteltzen ari denean da gozoena; gaur egungo aho-sabaietarako harrigarri gerta daiteke, baina ahozurienentzat apeta da.

Mizpira eztatzen zaion gurbeari "udalatxa" edo "udalatza" ere deitzen zaio; udare makatzarenaren edo maaltzarenaren antza badu, baduenez, haren fruituak.

Gurbitza (*Arbutus unedo*).

FABIENKHAN-CC BY SA

tuak. "Gurbia" deitzen dionik ere bada. Baita azpila edo maspila ere. Sagarminari edo sagar makatzari (*Malus sylvestris*) ere "gurbea" deitzen zaio. "Gurbitza" deitzen dugu guk etxean, beste batzuek aagorria, animania, burbux, burbuza, kaudana, garangorria, gurbiote, gurriote, kurkuxa eta kurpitz deitzen duten *Arbutus unedo*. Guretzat maspila da "azpila" eta "basagurbea" ere esaten dioten *Sorbus torminalis*. "Zurbala" ere deitzen zaio horri, eta bere igaliari "zurba"; hor-

tik zurbaran, zurbano, zurbaranbarri... Haren bestengusu otsalizarrari (*Sorbus aucuparia*) "udalatxa" deitzen zaio, baita atsolizarra, ostalizarra, txorieguerra eta ustaina ere. Hostazuria tartekoa dute, *Sorbus aria*. Eta arrosaren familia bereko elorriak, arkakaratsa... Eta abar.

Denak, garai bateko fruituak. Iraupen laburrekoak, baina udazkenean ahosabaia egitekotsu bihurtuko dutenak. Zirrara sakona sortu eta gogoahituko dizutenak. ■



Euskara tabernara!

· JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI ·

Donostia - alde zaharra

www.afuegonegro.com

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITAN OPARI

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

Durangoko Azokan eta ARGIA n lurreko beharrezkoak diren lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta Ilargiaren Egutegia, biak batera. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugun egutegia argazki deigarri moldatua da eta aurtengo Pello Zabalen testuekin osatuta dator. Hilero ilargiaren kokapenaren berri ematen du eta egutegi biodinamikoaren arabera, eguneroko joera eta egin beharrezko lan nagusiak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Azaroak 27

Arantza
Baskulan, 19:00etan.

Azaroak 29

Bera
Ertz#16ren egitarauaren barruan.
Iamotenean, 17:00etan.

Abenduak 1

Itsasondo
Udaletxeko aretoan, 18:30ean.

Abenduaren 4tik 8ra

Durangoko Azoka
Bizi Baratzeak saltokia izango du.
Lehenbiziko egunean liburuaren aurkezpena egingo da, eta egunero kontsultategia eta liburuak sinatzeko aukera egongo da Jakoba Errekondorekin.

BARAZKIATRA

POTATO nire lurpeko amorantea eta biok eltze berean ginen, igerian, gozo-gozo...
Temperatura gora zihuan,...
Bapatean, PLAUST!... azenario eder bat bion erdira...
eta olio zorrotada bat gauzak leuntzeko edo...

Zer diozu barazkien haragikeri lizunez? Ein?



KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

Barazkiak ez dira haragikeriatan aritzen eta lizun kontuak kalte besterik ez. Azal kontua da beraia; azala lodia izanagatik ere sekula ez axaletik... Larrurik ez, baina azala jo eta jokatzen dute, baita bestearen azalean jarri ere.

Barazki gehienek bi sexuak dituzte batera; hortik kontuak aterra. Nahieran molda daitezke: nor bere buruarekin, binaka, hirunaka, multzoka, zientoka... Ez dute gure txorakeriarik eta gutxiago aldameneko bedekazio beharrik. Gehienetan bitartekariak eta estalgileak erabiltzen dituzte, axola handirik gabe. Erle, liztor, kakalardo... asko dira Zelestina izeneko

“maireurrak”. Harremangin artekari artetsuak. Hartu eta eman ez noski, eman eta hartu. Baratzearen oinarria hori da, eman eta hartu. Gaur artekoa bezala etorkizuna.

Porrua eta azenarioa, aspaldiko lagun, ederki itzulikatzen dira. Patata, kanpotik etorritako lurpeetako fruitua, biek joko dute, begiz. Gure porrusaldako hiruren artekoaren bekaitz dira Europa osoko sukaldeetan. Olioak errazten du, baina Ezpeletako piperdun labaintzailea dute, hirurek, gustuko. Min punttua duen porrusalda jenez gero neuk ere igartzen diot festari...

Jakoba Errekondo